

# Loraldia kultur jaialdia publiko ez-euskaradunari gerturatzeko proposamena interpretazioaren ikuspegitik

Iris Carte García. Itzulpengintza eta Interpretazioko Gradua. Euskal Herriko Unibertsitatea  
Miren Ibarluzea Santisteban. Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila (HEIS).

## Sarrera eta xedea:

**LORALDIA**  
EUSKAL KULTURA GAUR

Loraldia urtero egiten den kultur jaialdi bat da, euskal kultur ekitaldi ezberdinak biltzen dituena eta euskal kultur garaikidea irudikatzen duena. Horretarako, diziplina artistiko hauek elkartzen dituzten ekitaldiak aurkezten dira:

- Dantza
- Antzerkia
- Berbaldia
- Bertsolaritza
- Ikus-entzunezko proiektzioak
- Musika
- Literatura
- Artea
- Poesia
- Mendi-ibilbidea


### Helburuak:

Euskal kultur industria sustatzea kultura moderno eta urbano bat ikusaraziz.

Euskal nortasunaren inguruko gogoeta bultzatzea eta datozen belaunaldiei kultur transmisioaren garrantzia helaraztea.

**ehukultura i<sup>3</sup>** nka: Nola gerturatu Loraldia jaialdia euskaradunak ez diren kultur zaleei

## Gidalerro nagusiak: Loraldiaren hizkuntza kudeaketarako proposamena



### • Aldibereko modalitatearen bidez interpretatu

- Antzerkia
- Poesia eta literatura irakurraldiak

### • Esan ostekoaren bidez interpretatu

- Bertsolaritza saioak


### • Grabazioa eskaini

- Mendi-ibilbide gidatua

### • Ez interpretatu

- Dantza eta audioa
- Dantza eta testua

## Ekitaldien kokapenaren mapa



## Gomendioak

- Hizkuntza- kudeaketarako interprete edo itzultzaile bat aholkulari izatea.
- Interpretazioa eskaintzeko espazioen azterketa egitea interpreteekin batera.
- Entzule ez euskaradunaren nahiak eta kopurua ezagutu.
- Sortzaileen nahiak errespetatu.

# Loraldia kultur jaialdia publiko ez-euskaradunari gerturatzeko proposamena interpretazioaren ikuspegitik

Iris Carte García. Itzulpengintza eta Interpretazioko Gradua. Euskal Herriko Unibertsitatea  
Miren Ibarluzea Santisteban. Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila (HEIS).

## Elkarrizketatutako interpreteen aipuak:

Entzule ez-euskaradunek ekitaldiaren jatorrizko esperientzia bizi nahi dezakete. Ez luke zentzurik ekitaldien hizkuntza-kudeaketa egitea entzule ez-euskaradunek jatorrizko esperientzia gozatzeko asmoa badute (Maitane Uriarte).

Aurretiaz sortu diren sormen lanak ekitaldia baino lehen itzulpen prozesu batetik pasa daitezke. Itzulpen hori egiteko, funtsezkoa da itzultzailea sortzailearekin harremanean egotea, sortzaileak erabili dituen hitzen ñabardurak zuzen itzultzeko. Euskal sortzaileak oso ohituak daude itzultzaileekin lan egitera. Badakite zeinen garrantzitsua den beraiantzat itzulpena eta badute itzulpenaren kontzientzia oso barneratua gehienek (Lurdes Auzmendi).

Hizkuntza kudeaketa egiteko, nik banan-banan aztertuko nuke ekitaldi bakoitzaren funtsa eta hartzaileak nortzuk izango diren, ez dagoelako erantzun simple bat. Aztertuko nuke euskararekiko zer harreman duen publikoak, sasi-erdaldunak diren edo neurri batean euskaraz alfabetatuak dauden (Claudia Torralba).

Jakin behar da interpretazioak noiz oztopatuko duen kultur ekitaldi bat. Interpretazioak ezin du ikuslearen arreta desbideratu eta eroso suertatu behar zaio bai interpretazioaren ikusle hartzaileari, bai interpretazioa jaso nahi ez duen ikusleari (Maitane Uriarte).

Interpreteei lan baldintza egokiak bermatu behar zaizkie eta horretarako dirua behar da. Euskal kulturari diru gehiago eman beharko litzaioke, baliabide urriekin egiten da askotan euskal kultura eta ez da aberatsa, finantzazio urria du. Euskal kulturak ditu gehiago jasoko balu, antolatzailearentzat, ikusleentzat eta hizkuntzen sektoreko langileentzat onuragarria izango litzateke (Ekaitz Bergaretxe).